Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko abenduaren 4a, ostirala — 233 — Viernes, a 4 de diciembre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## EIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Eibarko Udalaren Hirigintza Plangintzarako Aholku Batzordea arautzen duen Udal Erregelamenduaren 3. eta 6. artikuluen aldaketari dagokion testua jendaurrean jartzeko epearen barruan ez denez inolako alegaziorik aurkeztu, behin betiko onartutzat jo da, eta Erregelamenduaren testu osoa ematen da argitara, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko Legearen 70.2 artikulua aplikatuz.

Eibar, 2020ko azaroaren 26a.—Alberto Albistegui Zamacola, jarduneko alkatea. (6321)

*Udal erregelamendua, Eibarko Udalaren Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordea arautzen duena.*

ZIOEN AZALPENA

Botere publikoei dagokie herritar guztien parte hartzea erraztea, politikan, ekonomian, kulturan eta gizarte-eginkizunetan esku har dezaten, pertsonalitatearen garapena aberasteko tresna legez, hori baita politika-ordenaren eta bake sozialaren funtsa. Herritarrek afera publikoetan zuzenean edo ordezkarien bidez esku hartzeko duten eskubidea arlo guztietan sustatu eta adierazi behar da, bai pertsonek banaka dihardutenean hala nola era askotako talde gisa jarduten dutenean. Ildo horri jarraiki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 69. artikulua aitatu behar da, zeinak herritar orok herriko bizitzan esku har dezan Tokiko Korporazioek gauzak erraztu egin behar dituztela dioen.

Hirigintzaren alorrean, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, herritarrek esku hartzeko bideak edo mekanismoak erraztearren -esate baterako, herritarrek parte hartzeko derrigorrezko Programak egitea, planei dagozkien agiriei erantsiko zaizkienak- bere 109. artikuluan gainera zera ezartzen du: «udal-plangintzako aholku-batzordea nahitaez eratu behar dela plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena, berez edo eskuordetzan emanda, duten udalerrietan.» Aholku batzorde horrek, lehen esandako xede horiei erantzuten saiatzeaz gain, helburutzat toki erakundeari hirigintza-antolaketarako tresna garrantzizkoenak edo funtsezkoenak eratzen eta onartzen laguntzea du, eta zehazkiago esanda, Plan Nagusiaren zehaztapenetan laguntzea.

Bestalde, aipatu Lege horrek 110. artikuluak dio Udal Erregelamendua onartu eta horren bidez zehaztuko dela aholku batzordeak nork osatu eta nola eratuko den. Organo honi dagokio Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 20.1 artikuluan ezarritako oinarrizkoen osagarri izatearena da.

Helburu horrekin honako Udal Erregelamendu honek proposatzen duena da udal Planeamendurako Aholku Batzordearen eraketa eta funtzionamendua kontsulta-organo eta kide anitzeko organo legez arautzea, gizartearen esku hartzea hirigintza-plangintza estrategikoan eta udalerriaren garapen iraunkorra eratzen eta bultzatzen utziko duena. Erregelamenduaren bidez

## AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Anuncio*

No habiéndose presentado alegación alguna dentro del plazo de exposición pública del texto de la modificación de los artículos 3.º y 6.º del Reglamento Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del Ayuntamiento de Eibar, se considera definitivamente aprobado el mismo y se hace público el texto íntegro del Reglamento en aplicación del artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Eibar, a 26 de noviembre de 2020.—El alcalde en funciones, Alberto Albistegui Zamacola. (6321)

*Reglamento municipal regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del Ayuntamiento de Eibar.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Corresponde a los poderes públicos facilitar la participación de toda la ciudadanía en la vida política, económica, cultural y social como instrumento que propicie el libre desarrollo de la personalidad que es el fundamento del orden político y de la paz social. El derecho de la ciudadanía a participar en los asuntos públicos bien directamente bien por medio de representantes, debe promoverse y expresarse en todos los ámbitos, tanto en referencia a las personas individualmente consideradas, como respecto a los grupos de diversa naturaleza que la integran. En ese sentido, debe atenderse al artículo 69 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local disponiendo que las Corporaciones locales facilitaran la participación de todos los ciudadanos en la vida local.

En materia urbanística, la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, en el marco del impulso para favorecer los mecanismos de participación ciudadana, por ejemplo mediante la correspondiente formulación de Programas de participación ciudadana obligatorios anexos a la documentación de los planes, establece además en su artículo 109 la obligatoriedad de todos los municipios con competencias para la aprobación definitiva del planeamiento urbanístico de constitución de un Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico. Este Consejo, además de perseguir dar respuesta a los objetivos antes enunciados, tiene por objeto coadyuvar a la entidad local en la formulación y aprobación de sus principales instrumentos de ordenación urbanística y, más específicamente, en relación con las determinaciones del Plan General.

Por su parte, el artículo 110 de la citada Ley remite la constitución y definición de las características básicas del citado Consejo a la aprobación de un Reglamento Municipal. El carácter de este órgano es el de complementario a los básicos establecidos en el artículo 20.1 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Con este objetivo, el presente Reglamento Municipal propone regular la creación y funcionamiento del Consejo Asesor de Planeamiento del municipio como un órgano consultivo y colegiado que permita articular la participación social en la planificación urbanística estratégica y en la articulación e impulso del desarrollo sostenible en el municipio. A través del Reglamento

EK\CV GAO-I-2020-06321

erabakitzen dira halaber Planeamenduko Aholku Batzordearen oinarrizko egitura, haren eginkizunak eta araubide juridikoa, beti ere, kide anitzeko organo izaera duela kontuan hartuta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikuluak aurreikusten dituenetakoak.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluak xedatutakoarekin bat etorrita, ondoko araudi hau egiten da:

## I. KAPITULUA

### UDAL PLANEAMENDURAKO AHOLKU BATZORDEAREN ERAKETA ETA BETEKIZUNAK

*1. artikulua. Udal Planeamendurako Aholku Batzordearen sorrera.*

1. Ekainaren 30eko 2/2006. legearen 110. artikuluak aurreikusitakoarekin bat etorrita, Eibarko Udal Planeamenduko Aholku Batzordea sortzen da.

2. Udal Plangintzako Aholku Batzordea kide anitzeko tokiorgano osagarria da, izaera aldetik aholku-emailea eta eztabaidarakoa herriko hirigintza planak egiteko, tramitatzeko eta onartzeko prozeduraren inguruan gizarte-hitzarmenaren zereginak bete ahal izateko.

*2. artikulua. Atxikipena.*

Udal Plangintzako Aholku Batzordea hirigintzaren arloan udalean dagoen sail eskudunari atxikitzen zaio baina ez du inongo erlazio jerarkikorik sail horrekin.

*3. artikulua. Izaera juridikoa eta funtzionamendu-araubidea.*

Udal Plangintzako Aholku Batzordea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan araututako kide anitzeko organoa da.

Aipatutako 40/2015 Legea aplikatuz, Erregelamendu honetako III. kapituluan araututako funtzionamendu-araubideaz gain, Aholku Batzordeak bilerak eratu, deitu, egin, erabakiak hartu eta aktak bidali ahal izango ditu, bai aurrez aurre, bai urrutitik.

Urrutitik egiten diren bilkuretan, kideak leku desberdinetan egon ahal izango dira, baldin eta bitarteko elektronikoen bidez (telefono bidezkoak eta ikus-entzunezkoak ere halakotzat joko dira) ziurtatzen eta bermatzen bada kideen edo haien ordezkoen identitatea, haien adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea, eta baita haien arteko interaktibitatea eta komunikazioa denbora errealean, eta saioa egin bitartean bitartekoak eskuragarri daudela. Baliabide elektronikoen artean, besteak beste, baliozkotzat joko dira posta elektronikoa, audiokonferentziak eta bideokonferentziak.

*4. artikulua. Betekizunak eta helburuak.*

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak udal hirigintza-antolamenduko edozein zehaztapenen inguruko kontsultak, txostenak eta proposamenak egitea izango du helburu, ofizioz txostena nahitaezkoa edo derrigorrezkoa denean edo udalaren eskariz txostena derrigorrezkoa ez denean.

2. Hain zuzen ere hauexek dira Udal Plangintzako Aholku Batzordeari garatzea dagozkion betekizunak:

2.1. Hirigintza arloko udal informazioa jasotzea eta horren eraginpean egon daitezkeen hiritar entitate edo erakundeen artean informazio hori jakinaraztea eta zabaltzea.

2.2. Beste erakunde batzuetatik udalari kontuan hartzeko edo aztertzeko eskatzen zaizkion planeamendu nagusiko zehaztapenen inguruko ekimenak, iradokizunak, proposamenak eta aukerak aztertzea.

se determinan también aspectos tales como la estructura básica, funciones y régimen jurídico del Consejo Asesor de Planeamiento, atendiendo a su naturaleza de órgano colegiado de los previstos en el artículo 22 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y Procedimiento Administrativo Común.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco se dicta el presente reglamento:

## CAPÍTULO I

### DE LAS FUNCIONES Y LA COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

*Artículo 1. Creación del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.*

1. De conformidad con lo previsto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo del País Vasco, se crea el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal de Eibar.

2. El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal es un órgano local complementario y colegiado de carácter consultivo y deliberante para el cumplimiento de las funciones de concertación social en relación con el procedimiento de formulación, tramitación y aprobación de los planes urbanísticos de la ciudad.

*Artículo 2. Adscripción.*

El Consejo Asesor de planeamiento municipal se adscribe al área municipal competente en materia de Urbanismo, sin que exista relación jerárquica alguna respecto a la misma.

*Artículo 3. Naturaleza jurídica y régimen de funcionamiento.*

El Consejo Asesor de planeamiento municipal se configura como órgano colegiado de los regulados en los artículos 15 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En aplicación de la citada Ley 40/2015, además del régimen de funcionamiento regulado en el capítulo III de este Reglamento, el Consejo Asesor podrá constituir, convocar, celebrar sus sesiones, adoptar acuerdos y remitir actas tanto de forma presencial como a distancia.

En las sesiones que se celebren a distancia, sus miembros podrán encontrarse en distintos lugares siempre y cuando se asegure por medios electrónicos, considerándose también tales los telefónicos, y audiovisuales, la identidad de los miembros o personas que los suplan, el contenido de sus manifestaciones, el momento en que éstas se producen, así como la interactividad e intercomunicación entre ellos en tiempo real y la disponibilidad de los medios durante la sesión. Entre otros, se considerarán incluidos entre los medios electrónicos válidos, el correo electrónico, las audioconferencias y las videoconferencias.

*Artículo 4. Funciones y fines.*

1. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal tendrá como objeto la consulta, el informe y la propuesta en relación con cualquiera de las determinaciones de ordenación urbanística municipal, de oficio, cuando el informe sea preceptivo, o a instancia del Ayuntamiento cuando no lo sea.

2. En particular, corresponderá al Consejo Asesor de planeamiento municipal el desarrollo de las siguientes funciones:

2.1. Recepción de información municipal en materia de urbanismo y comunicación y difusión de la misma a las entidades ciudadanas que pudieran resultar implicadas.

2.2. Estudio de aquellas iniciativas, sugerencias, propuestas y alternativas relativas a las determinaciones de planeamiento general que desde otras instancias se planteen al Ayuntamiento para su consideración.

EK\CV GAO-I-2020-06321

2.3. Aholku Batzordeak beste plangintza edo hirigintza-antolaketarako tresna bati buruz eskatzen duen informazioa ezagutzea, bereziki, Kultura Ondarearen Katalogoari eragiten dioten planak edo antolaketa-tresnak, eta kasua balitz, horiei buruzko informazioa ematea.

2.4. Hiritarren parte-hartzea sustatzea; hirigintza-izaerako gaien inguruko herri-kontsultak proposatzea eta hirigintza-plangintzako dokumentuei erantsi zaien Herritarren Partaidetzarako Programaren aurreikuspenak hobekien betetzen laguntzea.

2.5. Udalari, herritarren partaidetzari eta hiri-iraunkortasunari buruzko azterlanak egiten eta txostenak eta proposamenak lantzen laguntzea eta aholkatzea.

2.6. Proposatutako hirigintza-antolamendurako zehaztapenetan elkarteen eta entitateen lankidetza eta konpromisoa sustatzea eta bultzatzea.

3. Aholku Batzordearen erabakiak eta proposamenak udal gobernu-organoei egiten zaizkien gomendiotzat hartuko dira, baina organo horiek erantzun arrazoitua eman beharko diete baztertzen edo aldatzen dituzten gomendio guztiei.

4. Hirigintza-espedientearen behin betiko onespen egintzan, Aholku Batzordeak planteatutako konponbideez aparte udalak beste konponbide batzuk hartzen baditu, konponbide horiek justifikatu egin beharko ditu.

*5. artikulua. Aholku Batzordearen edukiak. Txostenak egitea.*

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak udalak lantzen edo ezartzen dituen hirigintza alorreko plangintza eta jarduneko tresna, azterlan, programa, gidalerro eta jarduera-ildo guztien berri izango du, eta kasu guztietan eta nahitaez txostenak egingo ditu egiturazko antolamenduan eragina duten plangintza-tresnak lehen aldiz formulatzeko, tresna horiek osorik edo neurri batean berraztertzeko edo tresnotan aldaketa zehatzak egiteko.

2. Plan Nagusiaren, Sektorizatze-planaren edo Bateragarritze-planen egiturazko antolaketa lehen aldiz formulatzeko edo osorik edo neurri batean berraztertzeko espedienteetan, nahitaezkoa izango da Aurrerapen dokumentuaren edukiari buruzko txostena egitea, baita udalak proposatuak edo jada onartuak dituen plangintza horien hasierako eta behin behineko onespeneko dokumentuei buruzko txostena egitea ere.

3. Plan Nagusiaren Sektorizatze-planaren edo Bateragarritze-planaren egiturazko antolamenduaren barruko aldaketei dagozkien espedienteetan derrigorrezkoa izango da jendaurrean jarriko den aurreneko dokumentuaren (proposatua edo onartua) edukiari buruzko txostena egitea.

4. Aholku Batzordeak bere txostena tramitatzen ari diren dokumentuen informazio publikoko epeen barruan egin behar du.

5. Edozelan ere, txosten hori ez bada egiten ezarritako gehienezko epe horietan, ez egite horrek gaitu egingo ditu onespena emateko ardura duten udal organoak espedientea tramitatzen jarraitzeko, eta, behin betiko onespenaren egintzan, baliteke baita denboraz kanpo egindako txosten horren edukia kontuan ez hartzea.

II. KAPITULUA

UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA

*6. artikulua. Osaera.*

1. Ondorengo kide hauekin osatuko da Aholku Batzordea:

a) Alkatea edo udalburua; bera izango da Aholku Batzordearen Presidentea edo burua.

2.3. Conocer cualquier otro plan o instrumento de ordenación urbanística sobre el que el Consejo recabe información, en particular, aquellos planes e instrumentos de ordenación que afecten al Catálogo del Patrimonio Cultural, e informar, en su caso sobre los mismos.

2.4. Promover la participación ciudadana, proponer consultas populares sobre asuntos de índole urbanística y coadyuvar al mejor cumplimiento de las previsiones del Programa de Participación Ciudadana anexo a los documentos de planeamiento urbanístico.

2.5. Colaboración y asesoría al Ayuntamiento en la realización de estudios y emisión de informes y propuestas sobre la participación ciudadana y la sostenibilidad urbana.

2.6. Promoción e impulso de la colaboración y el compromiso de las diversas asociaciones y entidades en las determinaciones de ordenación urbanística propuestas.

3. Las decisiones y propuestas del Consejo Asesor de planeamiento municipal tendrán la consideración de recomendaciones para los órganos de gobierno municipal, pero estos tendrán que dar una respuesta fundamentada a todas las recomendaciones que sean desechadas o modificadas.

4. En el acto de aprobación definitiva del expediente urbanístico deberá justificarse por el Ayuntamiento la adopción de soluciones diferentes respecto a las planteadas por el Consejo Asesor.

*Artículo 5. Contenidos del Consejo Asesor. Emisión de informes.*

1. El Consejo Asesor de planeamiento municipal podrá conocer de cuantos instrumentos de planeamiento y ejecución urbanística, estudios, programas, directrices y líneas de actuación elabore o establezca el Ayuntamiento e informará, en todo caso y con carácter preceptivo, en los expedientes de primera formulación, revisión total o parcial o modificación puntual de instrumentos de planeamiento que afecten a la ordenación estructural.

2. En los expedientes referentes a la primera formulación o a la revisión total o parcial de la ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del documento de Avance y respecto al documento de aprobación inicial (propuestos o ya aprobados por el Ayuntamiento) de los citados planeamientos.

3. En los expedientes referentes a la modificación puntual de la ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del primer documento que se someta a información pública (propuesto o aprobado).

4. El Consejo Asesor de planeamiento municipal deberá emitir su informe durante los plazos de información pública de los documentos en tramitación.

5. En todo caso, la no emisión del citado informe en los plazos máximos establecidos habilitará a los órganos municipales responsables de su aprobación a proseguir con la tramitación del expediente pudiendo no ser tenido en cuenta en el acto de aprobación definitiva el contenido de los informes que se hubieran emitido extemporáneamente.

CAPÍTULO II

COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ASESOR
DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL

*Artículo 6. Composición.*

1. El Consejo Asesor estará compuesto por los siguientes miembros:

a) El Alcalde o la Alcaldesa del Ayuntamiento, que ostentará la Presidencia del Consejo.

EK\CV GAO-I-2020-06321

b) Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkaria; bera izango da Aholku Batzordearen presidenteordea.

c) Ordezkari bana udal ordezkaritza duten alderdi politiko bakoitzeko.

d) Udal ordezkapenik ez duen eta egin diren azken hiru udal hauteskunde horietako batean aurkeztu ziren alderdi politikoetako ordezkari bat.

e) Ingurumen Saileko zinegotzi ordezkaria.

f) Auzo-elkarteetako ordezkari bat. Planeamenduak udalerriaren zati bati bakarrik eragiten badio, zuzenean eragindako auzo-elkarteko horretakoa izango da ordezkaria.

g) Ingurumen elkarteetako ordezkari bat.

h) Merkatarien elkarteetako ordezkari bat.

i) Eibarren diharduten enpresarien edo ekintzailetzarekin lotutako entitateen ordezkari bat.

j) Desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen elkarteetako ordezkari bat.

k) Pertsona nagusien elkarteetako ordezkari bat.

l) Gazteen elkarteetako ordezkari bat.

m) Kultur elkarteetako ordezkari bat.

n) Kirol elkarteetako ordezkari bat.

o) Elkarte sozialetako ordezkari bat.

p) Etorkinen elkarteetako ordezkari bat.

q) Emakumeen elkarteetako ordezkari bat.

r) Izaera orokorreko sindikatuen ordezkari bat.

s) Eibarko baserritarren elkarteetako ordezkari bat.

t) Profesionalen elkargo edo elkarteetako ordezkari bat.

Batzorderako ordezkariak izendatu ahal izateko, elkarteek Elkarteen Erregistro Nagusian inskribatuta egon behar dute, udalerrian esku hartu eta bertan elkarteko kideak izan eta Aholku Batzordean parte hartzeko eskaera egin.

Gainera, elkarteek udal-intereseko irabazi-asmorik gabeko elkarteen erregistroan inskribatuta egon beharko dute, r) eta t) letretan jasotakoak izan ezik.

Zinegotzi izateagatik bokal diren ordezkariek beren kargua utziko dute Udalbatzaren agintaldia amaitzen denean; Aholku batzordearen osaera aldatu egingo da Udalbatza berria eratu orduko. Gainerako bokalen karguak lau urteko iraupena izango du, hala ere, duten karguagatik bokal direnek bokal izateari utzi egingo diote duten kargu hori galtzean.

Ahalegina egingo da Kontseiluan gizonen eta emakumeen osaera paritarioa bermatzeko, bai eta kasuan kasuko gaietan genero-ikuspegia txertatzeko ere. Horretarako, alderdiei eta elkarteei egindako deialdian eskatuko zaie, ahal dela, bi ordezkari izendatzeko, gizon eta emakumea.

2. Idazkaria Hirigintza Sailari atxikitako funtzionario bat izango da. Idazkariari egokituko zaio Aholku Batzordeari laguntzea eta aholkuak ematea, betiere Presidentearen zuzendaritza-

b) El Concejal o la Concejala delegado/a del Área de Urbanismo, que ostentará la vicepresidencia del Consejo.

c) Una persona representante por cada uno de los partidos políticos con representación municipal.

d) Una persona representante de los partidos políticos sin representación municipal, que se hayan presentado a alguna de las tres últimas elecciones municipales.

e) El Concejal o la Concejala delegado/a del Área de Medio Ambiente.

f) Una persona representante de las asociaciones vecinales. En el caso de que el planeamiento afecte a una parte del municipio, el representante deberá serlo el de la asociación vecinal directamente afectada.

g) Una persona representante de asociaciones medioambientales.

h) Una persona representante de asociaciones de comerciantes.

i) Una persona representante de empresarios/as o entidades relacionadas con el emprendizaje que operen en Eibar.

j) Una persona representante de asociaciones de personas con discapacidad física.

k) Una persona representante de asociaciones de mayores.

l) Una persona representante de asociaciones de jóvenes.

m) Una persona representante de asociaciones culturales.

n) Una persona representante de asociaciones deportivas.

o) Una persona representante de asociaciones sociales.

p) Una persona representante de asociaciones de personas inmigrantes.

q) Una persona representante de asociaciones de mujeres.

r) Una persona representante de sindicatos de carácter general.

s) Una persona representante de asociaciones de baserritarras de Eibar.

t) Una persona representante de colegios o asociaciones profesionales.

Para poder designar representantes en el Consejo, las entidades asociativas deberán estar inscritas en el Registro General de Asociaciones, intervenir y tener personas asociadas en el término municipal, y solicitar su inclusión en el Consejo Asesor.

Además las asociaciones deberán también estar inscritas en el registro de asociaciones sin ánimo de lucro de interés municipal, a excepción de las recogidas en las letras r) y t).

Los/as vocales que lo sean por ostentar la condición de concejales/as cesarán cuando expire el mandato de la Corporación Municipal, renovándose la composición del Consejo Asesor de acuerdo a la nueva composición de la Corporación. La duración del cargo del resto de los/as vocales será de cuatro años, si bien los miembros que lo sean por razón de su cargo, cesarán cuando pierdan esa condición.

Se procurará garantizar la composición paritaria de hombres y mujeres en el Consejo, así como la incorporación de la perspectiva de género en las materias de que se trate. A tal efecto en el llamamiento realizado a los partidos y asociaciones se les solicitará que a ser posible designen dos representantes, hombre y mujer.

2. Será Secretario/a un/a funcionario/a adscrito al Área de Urbanismo. Al secretario/a le corresponderá la asistencia y asesoramiento al Consejo Asesor, bajo la dirección del Presi-

EK\CV GAO-I-2020-06321

pean. Osoko bilkurarako deia egitea dagokio bilkuretara joatea hitzarekin baina boto barik eta bilkuren akta jasotzea.

3. Udal Plangintzarako Aholku Batzordearen kideak Alkateak emandako Dekretuz izendatuko dira eta Osoko bilkuran emango da dekretu horren berri. Elkarteetako kideen kasuan, izendapena, elkarteek eta entitateek eurek egindako proposamenez egingo da. Elkarteen artean adostasunik ez balego, Presidenteak edo batzordeburuak ezarriko du elkarteek parte hartzeko era zozketa bidez, txandaka, aniztasuna duten edo herrian errotuta dauden ikusita, denak batera hartuta edo egoki ikusten den beste moduren bat bilatuta.

4. Presidenteak teknikariak edo adituak izenda ditzake Batzordeko kideei txostena egin beharra duten gaien inguruan aholkuak emateko; eta batzordearen bileretara joango dira hitzarekin baina boto barik.

III. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDURAKO ARAUBIDEA

*7. artikulua. Ohiko eta ezohiko bilkurak.*

1. Planeamendurako Aholku Batzordea ohiko bilkuretan bilduko da Batzordearen txostena nahitaezkoa duten plangintzaespedienteak jorratzeko, Erregelamenduaren 5. artikuluak ezarritakoaren arabera. Ohiko bilkura hori txostena eginda amaituko da.

2. Dena dela, ohiko bilkurez gain, Batzordeak ezohiko edo aparteko bilkurak egin ditzake premiazko arrazoiak daudenean edo hala egitea komeni denean; bilkura horietarako deia Presidenteak edo batzordeburuak egingo ditu bere ekimenez edo batzordekideen erdiak gutxienez eskatuta.

*8. artikulua. Bertaratze quoruma.*

Bilkurak egiteko, beharrezkoa izango da lehenengo deialdian Presidentea eta Idazkaria bertan izatea, edo, bestela, legez dituzten euren ordezkoak, eta gutxienez, kideen erdiak.

Quorum hori lortuko ez balitz, bigarren deialdian –ordubetera– egin daiteke bilera, baldin eta Presidentea eta Idazkaria bertan badaude, edo, bestela, legez dituzten euren ordezkoak eta kideen herena».

*9. artikulua. Bilkura-deialdiak.*

1. Deialdiak, bilerak edo bilkurak egin baino bost lanegun lehenago egin beharko dira. Deialdiarekin batera eguneko gaizerrenda bidaliko da.

2. Aztertu nahi diren gaien eskariak Idazkaritzaren esku egongo dira deialdia egin baino hiru egun lehenago.

3. Batzordeburuak edo presidenteak, bere ekimenez edo batzordeko edozein kidek hala eskatuta, bilkura hasi aurretik gai-zerrendan agertzen ez den beste edozein gai premiaz sartzeko proposamena egin dezake.

*10. artikulua. Eztabaidak.*

Bilkurak Batzordeburuak edo Presidenteak zuzenduko ditu, eztabaidak ere berak antolatuko ditu eta bilkuren martxa ona bermatzeko komeni diren neurriak hartuko.

*11. artikulua. Erabakiak hartzea.*

1. Aholku batzordearen erabakiak bertaratuen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketaren bat balego, Presidenteak duen kalitatezko botoa erabiliko du. Edonola ere, boto partikularrak ere eman daitezke eta erabakiarekin bat ez datozen aldeek planteatutako eragozpenak jasoarazi.

dente. Le corresponde cursar la convocatoria del Pleno, asistir con voz pero sin voto a las sesiones del Pleno y elevar acta de las mismas.

3. Los/as componentes del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal serán nombrados mediante Decreto por el Alcalde o Alcaldesa y se dará cuenta al Pleno. En el caso de los miembros de las asociaciones, el nombramiento se efectuará a propuesta de las asociaciones y entidades implicadas. A falta de acuerdo entre las asociaciones implicadas, el Presidente/a establecerá su forma de participación mediante sorteo, rotación, criterios de pluralidad o arraigo, presencia conjunta o alguna otra fórmula que se considere adecuada.

4. El/la Presidente/a podrá también designar personas técnicas o expertas para que asesoren a los miembros del Consejo en las materias que han de ser objeto de informe y que acudirán a las sesiones del Consejo con voz y sin voto.

CAPÍTULO III

DEL RÉGIMEN DE FUNCIONAMIENTO

*Artículo 7. Sesiones ordinarias y extraordinarias.*

1. El Consejo Asesor de Planeamiento se reunirá en sesiones de carácter ordinario respecto a los expedientes de planeamiento que deban ser informados con carácter preceptivo por el Consejo según lo establecido en el artículo 5 del Reglamento. Dicha sesión ordinaria concluirá con la emisión del informe citado.

2. No obstante, fuera de las ordinarias, el Consejo podrá celebrar sesiones extraordinarias por razones de urgencia o de conveniencia, que serán convocadas por la Presidencia a iniciativa propia o a solicitud de, al menos, la mitad del número de personas miembros del Consejo.

*Artículo 8. Quorum de asistencia.*

«Para la celebración de las sesiones será necesaria, en primera convocatoria, la presencia del Presidente/a y del Secretario/a o de las personas que legalmente les sustituyan, y de al menos la mitad de sus miembros.

Si no se alcanzase dicho quórum, podrá celebrarse en segunda convocatoria, una hora posterior, siempre que concurran el Presidente/a y el Secretario/a o las personas que legalmente les sustituyan y un tercio de sus miembros».

*Artículo 9. Convocatoria de Sesiones.*

1. La convocatoria de las reuniones o sesiones deberá realizarse con cinco días hábiles de antelación a su celebración. A la convocatoria se acompañará en todo caso el orden del día de la sesión.

2. Las peticiones de asuntos a tratar deberán estar en posesión de secretaría con tres días de antelación a la elaboración de la convocatoria.

3. La presidencia del Consejo, por iniciativa propia o a petición de cualquiera de las personas miembros del mismo, podrá proponer la inclusión, con carácter de urgencia y previo a su inicio, de cualquier otro asunto no comprendido en el orden del día.

*Artículo 10. Deliberaciones.*

La Presidencia del Consejo dirigirá las sesiones, ordenará los debates y adoptará las medidas convenientes para garantizar el buen orden de las reuniones.

*Artículo 11. Adopción de acuerdos.*

1. Los acuerdos del Consejo Asesor se adoptarán por mayoría simple de los asistentes. En caso de empate, la Presidencia ejercerá el voto de calidad. En todo caso, se podrán adoptar votos particulares y dejar constancia de las objeciones planteadas por las partes discrepantes.

EK\CV GAO-I-2020-06321

2. Hartutako erabaki guztiak akta batean jasoko dira, idazkariak egingo duena; akta hori aztertzen ari den hirigintza-espedientearen parte izango da. Erabakiei hirigintza-antolamenduko proposamen zehatzak edo ordezko aukera zehatzak gaineratu ahal izango zaizkie, udalarentzat lotesleak ez direnak.

*12. artikulua. Funtzionamendurako barne arauak.*

Aholku Batzordeak -betiere Erregelamendu honetan ezarritakoa beteta- funtzionamendurako barne arauak ezarri ahal izango ditu.

*13. artikulua. Bilkura-lekua eta aktak.*

Aholku Batzordearen bilerak udalaren aretoetan egingo dira eta bilera horietako bakoitzaren akta egingo du Idazkariak; batzordekideei hamabost laneguneko epe barruan helarazi eta egiten den hurrengo bilkuran onartuko den akta.

*14. artikulua. Bitartekoak atxikitzea.*

Hirigintza arloan eskumena duen udal sailari atxikiko zaio Aholku Batzordea eta Sail horrek jarriko ditu batzordearen funtzionamendu onerako beharrezkoak diren bitartekoak.

*Lehen xedapen gehigarria.*

Erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hogei lanegunen barruan, batzordekide izan nahi eta erregelamendu honetako seigarren artikuluan aipatutako partaidetza-tituluren bat duten elkarteek eta pertsonek Udal Plangintzako Aholku Batzordean sartzeko eskaria egin dezakete.

Onartutakoei, Alkateak luzatuko die deialdia Aholku Batzordea eratzeko bilkurara joan daitezen; bilkura horretan izendatuko dira ordezkariak 6.3. artikuluak aurreikusi duen moduan.

*Bigarren xedapen gehigarria.*

Erregelamendu honetan berariaz aurreikusten ez denerako, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen II. Tituluko II. Kapituluak ezarritakoaren araberako funtzionamendua eta jarduna izango du Udal Plangintzako Aholku Batzordeak. Gainerako xedapenetan berriz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena– eta Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduak (2568/1986 Errege Dekretua) ezartzen dutenari jarraituko zaie, baita Euskal Autonomia Erkidegoak etorkizunean izan dezakeen Udalen Legeak liokeenari ere.

*Hirugarren xedapen gehigarria.*

Aholku Batzordeburuari edo Presidenteari ahalmena ematen zaio Erregelamendu honetan ezarritakoa aplikatzeko eta garatzeko behar diren nahi beste agindu emateko.

*Azken xedapena.*

Erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 15 lanegunetara sartuko da indarrean.

2. Los acuerdos adoptados serán integrados en un acta que se elaborará desde la Secretaría y que formará parte del expediente urbanístico objeto de análisis. Estos acuerdos podrán ser acompañados con propuestas o alternativas concretas de ordenación urbanística de carácter no vinculante para el Ayuntamiento.

*Artículo 12. Normas internas de funcionamiento.*

El Consejo Asesor podrá, con sujeción a lo establecido en el presente Reglamento, establecer sus propias normas internas de funcionamiento.

*Artículo 13. Lugar y actas.*

Las sesiones del Consejo Asesor se celebrará en dependencias del Ayuntamiento y de cada una de ellas se extenderá acta por la Secretaría, que será remitida a sus miembros en el término de quince días hábiles y será sometida a aprobación en la siguiente sesión que se celebre.

*Artículo 14. Adscripción de medios.*

El área municipal competente en materia de urbanismo, al que queda adscrito el Consejo Asesor, facilitará los medios necesarios para su correcto funcionamiento.

*Disposición adicional primera.*

Dentro de los veinte días hábiles siguientes a la publicación del Reglamento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, las asociaciones y personas que así lo deseen y se correspondan con algún título participante enumerado en el artículo sexto, podrán solicitar su inclusión en el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.

La Alcaldía convocará a los admitidos a la sesión de constitución del Consejo Asesor, en el que se nombrarán los representantes en la forma prevista en el artículo 6.3.

*Disposición adicional segunda.*

En lo no previsto expresamente en este Reglamento, el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se regirá en cuanto a su funcionamiento y actuación por lo dispuesto en el capítulo II del Título II de la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Supletoriamente, se estará a lo establecido en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (Real Decreto 2568/1986), y en una futura Ley Municipal de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Disposición adicional tercera.*

Se faculta al Presidente del Consejo para dictar cuantas instrucciones sean necesarias para la aplicación y desarrollo de lo establecido en el presente Reglamento.

*Disposición final.*

Este Reglamento entrará en vigor a los 15 días hábiles a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.